

## LANGILEAK HAUTATZEKO PROZESUETARAKO PRIBATUTASUN-ABISUA

SELAek aitortzen du zehatz-mehatz errespetatzen duela pertsonak beren datu pertsonalak tratatzearen inguruan duten funtsezko eskubidea, datuak babesteko araudian xedatutakoa ere zorrotz betetzearekin batera:

- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2016ko apirilaren 27an emandako 2016/679 Erregelamendua (EB), pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienean (DBEO).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa (aurrerantzean, DPBEBLO).
- Aplikatzekoa den edozein garapen-araudi.

Jarraian, SELAEren hautaketa-prozesuei dagokienez, Parte-hartzailearen Datu Pertsonalen tratamenduari buruzko informazio guztia zehazten da.

### 1 Tratamenduaren Arduraduna eta Datuak Babesteko Ordezkaria

#### 1.1 Tratamenduaren Arduraduna

Hautaketa-prozesuko Parte-hartzailearen Datu Pertsonalak SELAEk tratatuko ditu tratamenduaren arduradun gisa.

Jarraian, SELAEren identifikazio-datuak zehazten dira:

- Sozietate-izena:: Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado, S.M.E., SA (SELAE).
- IFZ: A86171964.
- Helbidea: Joan Maragall poeta kalea, 53 - 28020 Madril.
- Telefonoa: 900 11 23 13 / 91 596 23 00 (Bezeroa Artatzeko Zerbitzua).

#### 1.2 Datuak Babesteko Ordezkaria (DBO)

Parte-hartzaileak SELAEko DBOrekin harremanetan jarri ahal izango du bide hauek erabilita:

- Posta: SELAE, Erregistroa, "Datuen Babesa", Joan Maragall poeta 53, 28020 Madril.
- Web formularioa: [www.loteriasyapuestas.es/es/contacto-proteccion-datos](http://www.loteriasyapuestas.es/es/contacto-proteccion-datos).

### 2 Tratamenduaren helburuak, legitimazioa eta tratamenduaren epeak

#### 2.1 Helburu nagusia

Parte-hartzailearen datuak tratatuko dira eskainitako posturako hautagai egokiena hautatzeko eta, ondoren, kontratatzeke helburuarekin.

Tratamendu hori legitimatzen duen oinarri juridikoa tratamenduaren beharra da, Parte-hartzaileak eskatuta kontratu aurreko neurriak hartzeko (DBEOko 6.1.b. art.).

Tratamendu hori prozesua amaitu arte burutuko da. Ondoren, Parte-hartzaileak Helburu Osagarria baimentzen duenean izan ezik, datuak 3 urtez blokeatuko dira, tratamendutik eratorritako erantzukizun posibleei erantzuteko.

## 2.2 Helburu Osagarria

Parte-hartzaileak horrela baimentzen badu, haren identifikazio- eta curriculum-datuak eta harremanetarako datuak SELAEk tratatuko ditu, haren curriculumera egokitzen diren beste hautapen-prozesu batzuen berri emateko.

Tratamendu hori legitimatzen duen oinarri juridikoa Parte-hartzailearen baimen askea da (DBEOko 6.1.a. art.). Baimena emanaz gero, parte-hartzaileak edozein unetan baimen hori kendu ahal izango du Parte-hartzailearen Eskubideen atalean deskribaturiko prozedura jarraituz. Argiago geratzeko, Helburu Nagusia ez dago inola ere baimen hori lortzearen mende.

Parte-hartzaileak baimena ematen badu, tratamendua urte 1eko epean burutuko da Helburu Nagusia amaitzen denetik zenbatzen hasita. Ondoren, SELAEk Parte-hartzailearekin harremanetan jarri ahal izango du, nahi izanez gero, informazio eguneratua emateko eta baimena beste urte 1ez berritzeko. Bestela, berriz, Parte-hartzailearen datuak 3 urtez blokeatu egingo dira tratamendutik eratorritako erantzukizun posibleei erantzuteko.

## 2.3 Erabaki automatizatuak

SELAEk ez du helburu horietarako erabakiak hartzeko mekanismo automatizaturik erabiltzen.

## 3 Hartzaileak

SELAEk ez dizkie Parte-hartzailearen Datu Pertsonalak jakinaraziko hirugarrenei, legezko betebeharra edo babes judizial eraginkorra behar denean izan ezik (adibidez, erreklamazio judizialaren edo administratiboaren kasuan).

Ez da aurreikusten Datu Pertsonalak hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara transferitzea.

## 4 Beharrezko eta aukerazko datuak

Teknikoki bideragarria bada, beharrezko datuak Datu Pertsonalak jasotzeko formulario baten bidez identifikatuko dira (adibidez, izartxo baten bidez edo beste informazio-mekanismo baten bidez).

Parte-hartzaileak beharrezko datuak ematen ez baditu, ezin izango du hautapen-prozesuan parte hartu.

## 5 Datu Pertsonalen jatorria

Datu Pertsonalak, identifikazio-datuak, harremanetarako datuak eta curriculum-datuak Parte-hartzaileak berak ematen ditu zuzenean, edo, hala badagokio, Infojobs (Adevinta Spain, S.L.U.) eta/edo LinkedIn (LinkedIn Ireland Unlimited Company) bidez eskuratzen dira.

## 6 Parte-hartzailearen eskubideak

### 6.1 Eskubide aitortuak

Tratamenduaren arduradun gisa, SELAEk datuak babesteko araudiak legez ezarritako eskubideak gauzatzeko aukera bermatzen dio Parte-hartzaileari; hots, honako hauek:

- Sarrera: Parte-hartzaileak edozein unetan sartu ahal izango du bere Datu Pertsonaletara eta SELAEk haren Datu Pertsonalekin egiten duen tratamenduaren inguruan informazioa eskatu ahal izango du.
- Zuzentzea: Parte-hartzaileak eskubidea izango du Datu Pertsonalak zuzentzeko eskatzeko, horiek okerrak edo osatugabeak badira.
- Ezabatzea: Parte-hartzaileak bere datu pertsonalak ezabatzeko eta horiek tratatzeari uzteko eskatu ahal izango du, jasotako helburuetarako jada beharrezkoak ez badira.
- Aurka egitea: Parte-hartzaileak bere Datu Pertsonalen tratamenduaren aurka egin ahal izango du helburu espezifikoetarako direnean, legeak horrela ezartzen badu.
- Tratamendua mugatzea: Parte-hartzaileak eskubidea izango du haren Datu Pertsonalen tratamendua mugatzea eskatzeko, legeak horrela ezartzen duenean.
- Eramangarritasuna: Parte-hartzaileak eskubidea izango du haren Datu Pertsonalak formatu egituratu, erabilera arrunt eta irakurketa mekanikoko batean jasotzeko eta tratamenduaren beste arduradun bati helarazteko, teknikoki bideragarria izanez gero.
- Baimena baliogabetzea: Parte-hartzaileak Helburu Osagarria baimentzen badu, emandako baimena edozein unetan kendu ahal izango du. Baimena kentzearekin ez da eraginik izango kendu aurreko baimenean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunean.

### 6.2 Eskubideak gauzatzea

Parte-hartzaileak eskubide horiek gauzatu ahal izango ditu honako bide hauek erabilita:

- Posta: SELAEra gutun bat zuzenduko da: Erregistroa, “Datuen Babesa”, Joan Maragall poeta 53 - 28020 Madril, “Eskubideak gauzatzea” erreferentziarekin.
- Web formularioa: [www.loteriasyapuestas.es/es/contacto-proteccion-datos](http://www.loteriasyapuestas.es/es/contacto-proteccion-datos).

Bi kasuetan, Parte-hartzaileak argi eta garbi adierazi beharko du SELAEren hautapen-prozesu bateko parte-hartzailea dela; era berean, zein eskubide eskatzen duen adieraziko du, identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak azaltzearekin batera, SELAEK eskaera izapidetu eta erantzuna eman dezan. Parte-hartzailearen identitateari buruzko zalantzak izanez gero, beharrezkoa izango da NANaren kopia edo agiri ofizial baliokidea aurkeztea.

## 7 Erreklamazioak

Datu Pertsonalak legez kontra tratatu direla uste izanez gero, Parte-hartzaileak erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du honako hauen aurrean:

- Datuak Babesteko Espainiako Agentzia (DBEA – [www.aepd.es](http://www.aepd.es)).
- SELAEko Datuen Babeserako Ordezkaria (harremanetarako aurrean adierazitako bideak erabilita).